

opusdei.org

DUNI SAWADOGO

Harambee 2021 Saria:
Emakume Afrikarraren
Sustapen eta Berdintasunari

2021 Ots 23

Ikerketa-irakasle hau familia misto batean jaio zen, aita musulmana eta ama katolikoa, biak intelektualak eta eragin sozial handikoak.

Haiek hainbat balio irakatsi zizkioten, hala nola, lanerako gogoia, pertsonetikiko errespetua eta zintzotasuna, betiere bere herrialdearen eta besteen zerbitzura.

Sawadogo doktoreak ikasle askori laguntzen die, baita ekonomikoki ere, graduazioa amaitu dezaten. Gaur egun, bere ikasleak medikuak, farmazialariak eta unibertsitateko irakasleak dira.

Enpresetan eta laborategietan lan egiten dute edo beren farmazia-bulegoa bultzatu dute, ez bakarrik Boli Kostan, baita Afrikako, Europako eta Estatu Batuetako beste herrialde askotan ere.

“Boli Kostan, farmazia-bulegoak eta lehen mailako osasun-zentro publikoak puntu fokalak dira Coiden aurka borrokatzeko. Pandemiak gure herrialdean eragin txikia izan duen arren, dagoeneko 10 dira bizitza galdu duten botikariak”.

Koronabirusaren pandemian, Duni Sawadogo AIRP Autorité Ivoirienne de Regulation Pharmaceutique delakoaren Zuzendaritza Batzordean sartu da. Europako Sendagaiaren

Agentziaren antzeko erakundea,
Covid-19ren aurkako txertoak
onartzen dituen.

Gazteei ikasketak bukatzen
laguntzeaz gain, Sawadogo
doktoreak etengabe laguntzen du
emakumeen eta emakumearen eta
famiaren aldeko erakunde eta
ekimenen arteko berdintasuna
sustatzen, bere unibertsitateko
emakume irakasleen elkarteko kide
den aldetik. “Nire arduraldi eta
ahalegin nagusia, agian, ikerketa-
karrera bultzatzea da; izan ere,
zailtasun handiak ditugu, baliabide
gutxiko herrialde batean, itxaropena
gal ez dezaten.”

Halaber, Bigarren Hezkuntzako
irakasleak animatzen ditu
emakumearen eta zientziaren
mugimenduarekin bat egin dezaten,
eta Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza
eta Matematikaren alorrean
emakumeen parte-hartzearen koxka

murritzeko lan egin dezaten.
“Guztion artean lortu beharreko
zerbait da”.

Drepanozitosisia duten gaixoak
tratatzeko zentro bat bultzatzeko
baliabideak izatea du amets, eta
sendagai faltsifikatuen ondorio
kaltegarriak herritarrei
ezagutaraztea, sendagai horiek
erosteko tranpan ez daitezen.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/duni-sawadogo/](https://opusdei.org/eu-es/article/duni-sawadogo/) (2026 Mar
10)